

NON ZER

2 Iritzia

**3 Elkarrizketa:
Zer gertatzen da
Ekialdean?**

**4-5 Ekialdeko
kronikak**

**6-7 Zorionak Alavés!
Unax Ugalde**

**8 Mutilen kontuak,
Nesken kontuak**

9 Martxoak 8

**10 Literatura:
Pelutxeen abenturak**

**11 Testa:
Maitale ona al zara?**

12 Denborapasak



**EKIALDE INSTITUTUKO
ALDIZKARIA**

6.zbk

2001-eko ekaina

IRITZIA

Ekialdeko ikasleok:

Prentsa tailerreko ikasleak gara, eta lurtean paperak botatzeari buruzko gure iritzia emango dizuegu: ez gaude bat ere ados patiora ateratzen garenean jendeak paperak lurrera botatzearekin.

Alde batetik, lurra eta natura apurtzen ari garelako, eta bestetik oso itsusia ikusten delako kalea plastikozko poltsaz beterik.

Ez hori bakarrik: kaleko jendeak kexak azaltzen dizkio institutuari, eta horrekin lortuko dugun bakarra patiora atera ezin izatea izango da.

Paperontzi ugari daude paperak lurtean ez egoteko. Inori ez zaio kostatzen bere zarama behar den lekura botatzea. Beraz, zain dezagun gurea eta erabili paperontziak.

M.B., V.I., I.A.



Zuzendari anderea:

3.mailako neska bat naiz eta niretzat nahiko garrantzitsua den eskaera bat egin nahi dizut. Dakizunez, ikasleen komunitan ez dago ispilurik eta hau ez zait oso ondo iruditzen, batzuetan, edo gehienetan, oso erabilgarriak izan daitezke eta.

Nahiz eta irakasleen komunitan ispiluak egon, ez zait bidezkoa iruditzen gure komunitan ez egotea.

Eman dezagun aurpegia zikintzen zaizula: non begiratzen duzu garbitzeko? Bistan dago ispiluak ikasleen komunitan beharrezkoak direla, ikasle gehienontzat oso garrantzitsua baita gure itxura. Hori dela eta komunitan ispiluak jartzeko eskatzen dizut. Besterik gabe, nire eskaera kontuan izango duzulakoan, agurtzen zaitut.

N. C.

Ekialdeko zuzendaria:

3.mailako ikasle batzuk gara eta irtereei buruz gure iritzia eman nahi dizugu.

Alde batetik, irteera gehiago egin behar ditugula uste dugu. Bestetik, egiten ditugunak oso motzak dira. Ikasturte osoa etxeko lanak, azterketak,... egiten ematen dugu, eta liburuetatik pentsamendua urruntzeko irteerak oso aproposak iruditzen zaizkigu, hori bai, kanpoan gau bat baino gehiago emanez.

Hori guztia dela eta, espero dugu hurrengo urteko plangintza egiterakoan, irteera gehiago ezartzea.

Besterik gabe, gure iritzia kontuan izango duzulakoan, agur.

G.D., A.E., O.L.U.



3.mailako ikaskideok:

Hirugarren mailako neska bat naiz eta gutun hau idazten dizuet nire proposamena luzatzeko.

Hurrengo urtean ikasketa bidaia guk antolatu beharko dugunez, proposatu nahi nizkizueke aukera gehiago leku desberdinetara joateko: Italia, Londres, New York, Cuba, Santo Domingo,... Badakit gehiegi eskatzea dela, horregatik uste dut denok pentsatzen jarritz gero, ideia onak bururatuko zaizkigula dirua lortzeko. 'Ezina, ekinez egina'. Espero dut esaera betetzea.

Anima zaitzete!!

O.L.U.



Jaun-andere agurgarriak:

1.C mailako ikasleak gara eta zuei aurkeztu nahi dizkizuegu guk egindako lanak. Gaztelaniaz eta euskaraz idatzi ditugu. Denak enkoardernatu ditugu liburutegian uzteko. Extralurtarrak, sorginak, mozkorrak, amodioak, bizia duten objektuak, detektibeak,.. eta bestelako ipuinak.

Dakizuenek, liburutegian aurki ditzakezue. Denbora on bat pasatu nahi baduzue irakurketaz gozatzen, anima zaitzete gure ipuinak irakurtzera.

Espero dugu guk egindako lanaz zuek disfrutatzea.

Agurtzen zaituztete:

1.C mailako ikasleak

ZER GERTATZEN DA EKIALDEAN?

Ekialde institutuko zuzendariari, Maria Eugeniari, elkarrizketa hau egitea erabaki dugu Ekialdeko arazoen berri jendeari jakinarazteko .

*M^a Eugeniarekin hitz egin ondoren atera ditugun ondorioak hauexek dira: **Zaletasunak:** Ikasleekin hitz egitea, klaseak ematea. **Gustoak:** Irakurtzea, herrialde desberdinak ezagutzea, zinema... **Asmoak institutua hobetzeko:** Dinamizatu eta berri bat egin (barrezka). "Nahiz eta daukaguna askoz hobetu, beti izango da institutu zahar bat. Dena den, saiatuko gara pixkanaka pixkanaka hobetzen."*

1. Zure ustez Ekialde eskola ondo ekipatuta dago? Zergatik? Zer falta zaiola uste duzu?

Gero eta hobeto, baina ezin dugu esan erabat ekipaturik dagoela. Orain dela bost urte hasi ginen hemen eta hortik hona asko aldatu da eta asko hobetu da. Ez dakit gela gehiago edo irakasle gutxiago, depende, baina momentu honetan dagoen ikaslegoarentzat ez dago nahikoa.

2. Zergatik daukate irakasleek erretzeko gela bat eta ikasleek ez?

Erretzeko gela bat? Ez daukagu erretzeko gelarik, irakasle gelan ezin da erre. Irakasle gelan eta mintegietan ezin da erre eta erretzen dutenak, eta gutxi dira, jartzen dira hor pasiloetan, kórner batean erretzen. Ez dago toki berezirik.

3. Zergatik dira irakasleen komunak ikasleenak baino hobekak?

Ziuraski gutxiago erabiltzen ditugulako, gureak ere oso txarrak baitira. Ikasleenetan ere, etorri ginenean, bazeuden ispiluak, jaboia, eskuak garbitzeko papera, kontenedore bereziak, ispiluak, ...Eta lehenengo urtean papera uzteko zakarrontzi berezi horiek erre zituzten, ispiluak apurtu, Ikasleek jarri zituzten orain dauden moduan. Hala ere, onartzen dugu institutuko gauzarik txarrean komunak direla, eta askotan eskatu dugu berriak egitea.

4. Zergatik ez dago Teknologia hiru gela besteak bezala?

Printzipioz, etxetxo hori ez da Teknologia gela berez,, hornitu genuen beharrezkoa zelako baina espero dugu

datorren urtean ez dela horretarako izango. Izango da edo argazkigintza edo artegintza egiteko, edo beste ekintza batzuetarako. Teknologia gelak berez bi hauek dira.

5. Zenbat egunetan garbitzen dute kiroldegia eta Teknologia hiru?

Ba, egia esaten badizuet, ez dakit. Berez, Teknologia gela eta gimnasioa egunero garbitu behar zuten baina bada- kit ez dutela egiten eta askotan ere erreklamatu dugun baina zaila da egunero kontrolatzea.

6. Ikasleei Interneten utziko al diezue sartzeko?

Bai, bai noski, haientzat izango da.

7. Noiz jarriko dituzue altzairu berriak eta takilak?

Beno, gaue egun dauden takilak Ekialde 2-tik ekarri genituen, ez ditugu erosi, oso garestiak zirelako. Eta mundu guztiarentzat ez zeudenez, pentsatzen genuen hobe zela txikiei jartzea batez ere zuek esan duzuenagatik pisu asko eraman behar dutelako eta suposatzen da haiek txikiagoak direla, eta gero pixkanaka pixkanaka 3. eta 4. mailan ere jartzea. Azken finean diru arazoa da ! Altzairuak berriz, berriak dira, zahar itxura dute oso gaizki tratatzen dituzte-

lako! Mahaiak margotuta, pintadez eta txiklez josita, eta gehienak berriak dira. Apalategiak berriz, klaseetan jarri genituen baina ikusi genuen 3. eta 4. mailakoek ez zituztela erabiltzen eta azkenean kendu egin genituen.

8. Kritika txar bat ondo hartzen duzu ala gaizki?

Laguntzeko baldin bada, bai, Suposatzen da beharrezkoak direla gauzak hobetzeko.

9. Zergatik ez duzue aldatzen jantokiaren janari nazkagarria?

Nazkagarria dela zuek esaten duzue. Nire ustez, janaria ona edo txarra izaten dela gosearen arabera eta benetan 2. zikloko jendeak errekreoa oso berandu dauka eta bertan, mila zikinkeria, bai gozokiak edo bokatak, jaten dituzte hamabietan, Eta denok dakigu, goserik gabe gauzak ez ditugula hain ondo ikusten. Egia da etxean bezala ez duzuela jango baina kalitatea eta oreka guztien artean nahiko ondo dago. Eta azken finean, gustuen asuntua da.

10 Zuzendari ona zarela uste duzu?

Hori nik ezin dut esan, besteek esan behar dute, ni saiatzen naiz gauzak ondo egiten ez dakit asmatzen dudana ala ez.

Leire R., Sara O., Laura H., Marta P.



Venez à Paris avec nous



Cette année on est sorti le 31 mars et on est resté en France jusqu'au 4 avril. Nous avons connu beaucoup de monuments de Paris: La cathédrale de Notre-Dame, le musée du Louvre avec ses pyramides en verre, Le Sacré-Coeur, Le Quartier Latin, le Centre Georges Pompidou, le quartier des affaires, c'est à dire, La Défense, La Tour Eiffel, L'Arc de Triomphe, etc. Dans les rues il y avait beaucoup de monde et nous avons vu une grande manifestation où tout le monde allait à patins à roulettes.

À onze heures du soir on a pris le métro pour aller à l'hôtel, mais au lieu de dormir on a fait une petite boum.

Le lendemain nous sommes allés à Disneyland-Paris et nous avons joui de toutes les attractions, par exemple l'espace mountain, Indiana Jones, Mickey,... et on a acheté des cadeaux pour notre famille et nos amis. Cette nuit on a bien dormi à l'hôtel de Paris.

On a pris le bus pour aller à Poitiers. On est arrivé le soir, mais avant d'aller dormir nous avons dansé dans une discothèque avec quelques élèves de Bilbo.

Le matin du 4 avril on a connu la ville d'Angoulême (La ville de la bande dessinée). Une guide nous a montré la ville ancienne et les dessins

qu'il y avait sur les murs.

Après avoir déjeuné dans un "burger" on a pris un café et ensuite on a commencé le voyage de retour à Vitoria-Gasteiz.

Pendant le voyage on a vu trois films: "Mission Impossible 2", "Gladiator" et "American Pie". Le dernier film nous a beaucoup plu.

Finalement on est arrivé à Gasteiz, et la tristesse nous a envahis.

Frantses ikasleak

Zatoz gurekin Parisera.

Lau egun pasatu ditugu Frantzian eta zoragarriak izan dira. Parisen monumentu asko ikusi ditugu: Eiffel Dorrea, Notre-Dame katedrala, Garaipen Arkua, Louvre museoa, e.a. Kaleetan jende asko zegoen eta manifestapen bat ere ikusi dugu: milaka pertsona patinez. Hotelera metroz joan ginen, baina ez genuen lorik egin, "festa" txiki bat antolatu eta ...

Bigarren egunean Euro-Disneyra joan ginen eta han pasatu genuen egun osoa. Mickey ikusi genuen eta atrakzio guztietara joan ginen.

Angulema ere ezagutu genuen. Angulema Gasteiz hiriarekin anaitasun harremanak dituen hiria da. Komikiaren hiria ere bada eta horregatik kaleetako hormetan irudi asko zegoen margotuta.

Hemendik Gasteizerako bidea hartu genuen eta hona oso triste iritsi ginen. Ze pena! Hurrengo urtera arte!

KORRIKA badator ... KORRIKA joan da



Dagoeneko hilabete batzuk pasa dira KORRIKA gure hiritik hasi eta Baionara heldu zenetik. Gasteiztarrok harro gaude aurtengo KORRIKaz eta ez da gutxiagorako ere. Adiz ezberdineko makina bat jende ateraz zen Gasteiztik egun horretan auskara aldarrikatzeko. Parte hartu zuten gazteek, nahiz zaharrek, emakumeek nahiz gizonek, egun paregabe horretaz gozatu ahal izan zuten korrika eginez, izarditan gure hizkuntza maitearen alde.

Ekialdeko irakasle, guraso eta ikasleok bikoiztuta daukagu aurtengo KORRIKArekiko poza hori. Lehenengoz, kilometro bat erosi genuen. Eta gero, Ekialde 2tik ateraz ginen korrikalarios eta kilometro batez lekukoa eramanez ginen euskarari gure bultzakada eman eta goian eusten laguntzen duten garrasi eta lema horiek oihukatu genituen.

Kilometroa zeharo laburra egin arren, bertan bildu ginen institutu osoa, egindako pankartari harro helduz eta lekukoa hiru ikasleen artean eramanez. Hantxe geunden Gas-Gasteiztik hasitako KORRIKAre partaide euskaldunak, **ttipittapa, ttipittapa ... KORRIKA** hurrengoaren zain, eta bitartean

EKIALDEAN ERE EUSKARAZ!

Izaskun Valenciano (4.D)

EKIALDEKO LEHEN MAILAKOAK **BETIZU** PROGRAMAN PARTE HARTU DUTE

1. mailakook EITBera joan ginen BETIZU programan parte hartuz. Gure asmoa ping-pong mahaiak irabaztea zen, gero gure ikastetxeko patioan ipintzeko. Baina lortu genuen gauza bakarra Elisa, gure irakaslea, dutzatzea izan zen.

Nahiz eta ez irabazi, oso ondo pasa genuen. Eta Elisa blai-blai eginda ikusteak pena merezi izan zuen. Dena den jarraituko dugu

gure helburua bete arte:
**PATIOAN PING-PONG
MAHAIK NAHI DITUGU**

IPARRALDE EZAGUTZERA

A. BARRIOLA SARIA LORTUZ GERO

Urtero dator, baina ez genuen parte hartzen, zergatik? Ezin dizuet esan. Eta zergatik aurtengo bai? Ez dakit ere, baina, beno, asuntua da egin genuela, eta nola?

1go mailako 4 geletan planteatu genuen gure ikasleek "deklamazioa" egin behar zutela, eta zer deklamatu? Olerkiak, narrazioa eta baita testu dramatikoak ere.

Saiatu, efektu bereziak bilatu, magnetofonia prestatu eta grabatzera.

Hala egin eta gero, behar genuen lekura bidali eta itxaron besterik ez geneukan.

Eta erantzuna heldu zen:

1.C taldea saritua suertatu zela esanez.

Hau poza! 2001ko urriaren 8tik 11ra Iparraldera joango dira Euskadiko beste sei talderekin.

Eta irakasleok? Oraindik ez dakit, baina badirudi bidaia polita egingo dugula; baina ez pentsa turismo bidaia izango denik, ikasleak bezala, ez. Irakaskuntzan elebitasuna edo eleaniztasun programa duen herri bat bisitatuko dugu.

Celia G.

ZORIONAK ALA-

AHAZTU EZINA

Alavesek, UEFA guztian egin zuenari esker, azken partidua jolastu ahal zuen. 13 partidu jokatu egin zituen goraino ailegatzeko; horietatik zazpi irabazi zituen, lau berdindu zituen eta bi galdu zituen.



KARMONA:
*“Erori gara,
 baina ...
 HARRO
 GAUDE!”*

DORTMUND

Alavesek jokatu zuen egunetan, 4000 zale atera ziren, 6 orduetan 18 hegazkinetan. Lehenengo hegazkina puntual atera zen, baina ondorengo guztiak atzerapenarekin.

Alaveseko zaleak Dortmundera ailegatzera koan zaparrada batek eman zien ongietorria. Bertan 3000 zale baino gehiagok 250kg paella jan zuten, garagardoa eta ardoaz lagunduta. Jan ondoren Celedón Dortmundeko plazako dorretik jaitsi egin zen.

MALKO TXURIURDINAK

5000 zale inguru egon ziren, Baskoniaren aintzinako kantxan, Mendizorrozan zegoen pantaila handiaren aurrean. Kantxa honek zaleen “oinen” lurrikara pairatu behar izan zuen, jendearen saltoak zirela eta. Zaleek ez zuten bakarrik utzi Alaves bere partidu garrantzitsuenean. 120 minutu saltoka eta abesten egon ziren, denok aldi berean. Denak ogitartekoe-kin, ardo botilekin eta behar zuten guztiarekin etorri ziren geratzen zen denbora aguantatzeko.

Urduritasuna eta alaitasuna egon ziren talde honen ondoan.

Erlojuari begirada urduriak, malkoak eta besarkadak ikusten ziren partidu honen aurrean, baina jendea ez zen isiltzen. Kopa ez zuten irabazi baina guztiontzat “TXURIURDINAK” txapeldunak izan ziren.

GALERA SAMINENA

Alavesek, maiatzaren 16an azkenerraino borrokatu zuen, bere lehenengo Europako titulua lortzeko, baina azkenean futbolaren bidegabekeariagatik titulurik gabe geratu zen. Lehenengo 15 minutuetan, txuriurdi-nei bi gol sartu zieten oso urduri azaldu zirelako, (3. min 1-0; 15.min 2-0;). Baina bat-batean Manek Iván Alonso atera zuen eta Contraren pasearekin, buruz gol bat sartu zuen (26. min 2-1;). Hamar minutu beranduago Herrerak, penalti bat probokatu zuen eta beste gol bat sartu zuten Liverpoolleko jokalariek, (39.min 3-1).



JAVI MORENO:
*“Nahiz eta par-
 tidua galdu,
 TXAPELDUNAK
 GARA “*


3-1 emaitzarekin bukatu zen lehenengo zatia.

Bigarren partea hobeto hasi zen: Javi Morenok, buruz 3-2 egingo zuen gola sartu zuen. Eta handik 4 minutura Javi Morenok berriz, beheko jaurtiketa batez, partidua berdindu zuen. 20 minutu beranduago Fowlerrek gol bat sartu zuen, baina txuriurdi-nek, ez zioten garrantzi handirik eman, eta Jordi Cruyffek partidu berdindu egin zuen (4-4; 89 min).





TELLEZ:
*“Talde ikaragarria
 gara eta gure
 jarraitzaileak
 munduko one
 nak”*



KONTRA:
*“Kopa altxatzea
 merezi genuen”.*



MANE: *“Final
 handia izan
 zen talde
 txikiari esker”*

Prorroga ondo zihoala, txuriurdinek akats handi bat egin zuten eta Gelik gol bat sartu zuen bere atean.

Arbitroa ez zen “ondo” portatu Alaves taldearekin, bigarren partean Magno kanporatu zuen eta prorrogan Karmona. Beraz, Alaves 9 jokalariekin gelditu zen. Arbitroak hori egiteagatik birau asko entzun behar izan zituen.

Hala ere,

ZORIONAK ALAVES!!!!

“Urrezko gol” famatu hori bere atean Gelik sartu zuenean, zale eta jokalaria guztiek ezin izan zioten negarrari utzi.

Une txarra pasa ondoren Alaveseko jokalaria burua tente eta azken momentua arte ondo jokatzegatik, aldageletara oso pozik sartu ziren, zale-

Yenai Pérez de Nanclares, Mainer Agirre,
 Saioa Cangas, Leire Domínguez
 (3.maila)

UNAX UGALDE UGALDE UNAX

Unax Ugalde was born in Gasteiz in 1978. In 1981 he started studying in “Arantzabela” Primary School. Some years later, in 1992, he went to “Koldo Mitxelena” Secondary School and they say he was a normal student.

His favorite colour is blue and he likes to eat “pisto” and drink “Fanta” orange. His favorite country is Mexico and his favorite music band is “Garden”.

In 1997 he started working in a TV series called “Entre dos fuegos”. In this series he wasn't very successful because he wasn't famous yet.

In 1998, due to his work, he had to go to live to Madrid. From this moment on he had lots of

opportunities to make series, films and publicity. He appeared in an advertisement and worked in TV series such as : “A las once en casa” on TV1, “Condenadas a entenderse” on Ant3 and “El grupo” on Tele5. This last one has been the most famous series in his life so far. He has also played a role in the film “Bailame el agua” together with Pilar Lopez de Ayala and has acted in a short.

In the series called “El grupo” Unax played the role of a boy that had drug problems, but Arantxa, the other protagonist, helped him to overcome the problem.

The latest film he has appear-

GOLEGILEAK:
 Javi Moreno 6
 Iván Alonso (1 penaltiz)
 Jurica Vucko 4
 Jordi Cruyff 4
 Iván Tomic 3
 Cosmin Contra 3 (1 penaltiz)
 Magno Mocelin 2
 Oscar Téllez 2
 Dan Eggen 1
 Ibon Begoña 1
 Juan Epitie 1
 Jorge Azkoitia 1
 Raúl Gañan 1
 Jhonsen (Rosenborg) bere atean.



red in is called “Mi dulce” and we think that he plays an excellent role in there!

Naia Muñoz, Janire Ocerin

Zer dakizu Martxoak 8az

1908.eko martxoaren 8an New York hiriko lantegi bateko emakume langileak lan baldintzak hobetzea eskatuz, lantegiaren barnean itxi ziren. Sute bat sortu zen eta han zeuden guztiak hil ziren. Gertaera hori gogorarazteko, martxoaren 8a Emakume Langilearen Eguna bezala onartu zen.

Egoera aldatzeko ahaleginak egiten badira ere, gaurko gizartea nahiko sexista da. Emakume eta gizonezkoen lanbide eta eginkizun ezberdinak esleitzen zaizkie beren benetako gaitasunak kontuan izan gabe. Sexuaren arabera portaera, jarrera edota gustoko gauzak ezartzen dizkiete. Horrela, duela gutxi arte, gizartearentzat emakumearen lekua etxean zegoen, horrekin zerikusia duten lanak betetzen, eta gizonarena, aldiz, etxetik kanpo edozein lan produktibo egiten, lantegi batean, bulego batean,... Lanbide bereizketaren ondorioz, gizonezkoak ez ziren gai etxeko lanak beren kabuz betetzeko, eta emakumeek ez zuten beren burua gai ikusten etxetik kanpoko lanak egiteko. Nahiz eta etxeko lanak oso gogorak eta garrantzitsuak izan,

ez da inoiz lan produktibo bezala onartu eta, ondorioz, oraindik gabekoa da, etxekoandre askok Gobernuari etxeko lanak egiteagatik soldata eskatzen dioten arren.

Beraz, nahiz eta egoera hobetu den, ez da oso hobekuntza nabarmena izan. Emakume eta gizonezkoen esleitutako estereotipoak deusezteko ahaleginak egiten ari dira, eta emakumeek etxetik kanpo lan egitea ongi ikusita dago orain, zorionez. Baina askotan emakumeek beren lankideek baino soldata txikiagoa eskuratzen dute emakumezkoak izateagatik, edota eskubide gutxiago dituzte. Gainera, batzuetan eraso sexualak jasan behar dituzte lanean. Noski, kontu hauen kontrako legeak sortu dira, baina oso kasu gutxi salatzen dira, erasotzailea ugazaba edo status altuko lankide bat izan ohi delako. Bestelako eskubideak daude, amatasunarena adibidez, ume bat jaio eta gero denboraldi batez lanera ez joateko baimena ematen duena.

Sexismoak emakumeengan marjinazioa badu eragin bezala, gizonengan presioa eragiten du.



Topikoen arabera, gizon bat indartsua, ausarta, gogorra ... izan behar da. Ahots grabea izan behar du, eta beste gizonekiko afektua ezin du musu batez adierazi, emakumeek ez bezala. Haurtzaroan ezin du panpinekin jolastu; arropa kontuetan, ere baldintzatuta dago: ezin du arrosa kolorea inola ere jantzi. Beraz, sexismoak bi sexueta pertsonen eragiten die negatiboki.

Sexismoaren aurka borrokatzen duten elkarrekin gaitzak nahi duten beste oztopo bat hizkuntzarena da. Askotan talde bati erreferentzia egiteko maskulinoa erabiltzen da. Hau gaztelaniaz euskaraz baino gehiago gertatzen da. Hori aldatu nahi dute, izen neutroak erabiliz, adibidez. Baina, egia esan, nire ustez hori ez da garrantzitsua. Hizkuntza da azken finean, eta "Kaixo mutilak!" esan ordez, "Kaixo neska-mutilak!" esateagatik ez da ezer aldatuko. Niri berdin zait nola deitzen nauten. Nire iritziz, hori ez da aurrerapausu bat sexismoaren kontra.

Argi dago sexismoaren kontrako "giltza" hezkuntza dela. Gizarte sexista batean hezitzen diren umeek osaturiko gizartea ere sexista izango da. Beraz, mutilak eta neskek berdintasunean hezitzea garrantzitsua da, dudarik gabe.

Gonzalo San Martín (4.B)



Mutilen kontuak = Nesken kontuak

Gaur egun, arrazoi batek edo besteak eraginda, beti orainaldia osatzen duten gaietariko bat da kirola. Honen barruan, noski, eztabaida desberdinak sor daitezke: kirolari batzuen soldatak handiegia al dira?, Errealaren azkenengo partidaren epailea oker egon al zen?... neskak soka-saltoan eta mutilak futboleant?... Azkenengo galderak adierazten duen bezala, nahiko zabaldua dagoen pentsakera sexista batek dio kirol batzuk emakumeentzat eta beste batzuk gizonek bakarrik praktikatzeko direla. Benetan harrigarria da hainbeste jende oker egotea eta horrelako zentzugabekeriak esatea.

Hasteko, kirol guztien helburu komuna pertsona osasuntsu egotea eta ondo pasatzea da, eta ukazina da honek ez duela loturarik bere sexuarekin. Honekin loturik, aipatu behar da ume asko zoritxarreko sentitzen direla, bereizkeria zital honek eraginda jendeak haiei barrezka aritzen baitaie, gustoko duten kirola praktikatzegatik. Gainera, beste askok zoritxarrez ez dute horretan aritzeko aukerarik, bere sexu-ko talderik ez baitago eta beste taldeek onartzen ez baitituzte. Honen erruz, baztertuak sentitzen dira. Bestalde, honi buruz hain pentsakera primitiboa dutenen argudiorik nabarmenena da kirol batzuetan, futboleant adibidez, mutilak hobeak direla, eta beste zenbaitetan neskak. Kasu honetan, onartu behar da futbolari



hoberenak mutilak direla, baina horren zergatia ez da futbola emakumezkoentzat ez izatea, praktika eta motibazio falta baizik. Txikitan, bai mutilak bai neska ari daitezke futboleant, baina heldutzean, profesional bihurtzean, zailagoa izaten da emakumeentzat. Gizona baldin bazara, dena zoragarria da: urtero milaka milio irabaz ditzaitezue gustoko duzuna egiteagatik, baita famatua izan ere. Emakumea bazara, ordea, inork ez zaitu ezagutuko eta ez duzu hainbeste dirurik irabaziko. Ez hori bakarrik, amorrua sentituko duzu zuzengabekeria honetan pentsatzen duzun bakoitzean. Normala denez, egoera honetan ezizezkoa da gizon batek bezain ondo jokatzea. Hala ere, emakume batzuek lortzen dute. Beraz, sexuak ez

du zerikusirik praktikatzeko den kirolarekin, ezta kirolariaren kalitatearekin, baina bai gizar-teak eta kirolariari ematen dizkieten tratua eta aukerarekin.

Nire iritzia azaldu dut ahal izan dudako modu hoberean. Uste dut frogatu dudako kirolarien sexuak ez duela kirola erabaki behar, eta benetan honela denean zoriontsuagoak izango garela guztiok. Geratzen zaidan gauza bakarra da zuen, guztien eta nire bizimodua hobetzeko eskaera bat egitea. Ez ezazue inor alde batera utz praktikatzeko duen kirola bere sexurako egokia ez dela pentsatzegatik, eta gustoko duzuen edozein kirolariari zaitzete, besteen iritziaz arduratu gabe. Denon artean lortuko dugu hobekuntza.

Maitane Lacalle (4.F)



Pelutxeen abenturak

Bazen behin zazpi urteko mutiko bat Unai izenekoa. Ume argala zen, haizeak eramateko modukoa. Pixka bat ganbaratik izorratuta zegoen, beti oihuka eta korrika, tontakeriak esaten. Baina eskolan beti sator lana egiten zuen. Mutikoa edonoren aurrean aurkezteko horietakoa zen; eskolako antzerkietan beti hartzen zuen parte. Bere lagunekin, hitzeko pertsona zen. Parkera joaten zenean, beti telefonoz deitzen zien. Hori bai, ez zuen ezta zentimorik ere ematen.

Unai txakur bat zuen, Gara izenekoa. Honek ez zuen kolpe zorrik jotzen, beti lotan zegoen. Hori bai, baratxuria baino finagoa zen. Garbia izan arren, inork ez zekien zergatik baina zebilen tokian "arras-toa" uzten zuen. Bere etxearen inguruan ibiltzen zen bueltaka, ea norbait zetorren ikusteko.

Umearen ama eta aita oso alaiak ziren. Asko maite zituen Unai bere gurasoak, baina bihurkeria asko egiten zien logelan.

Bi pisuko etxe batean bizi ziren denak. Unai oso gustukoak zituen pelutxeak, eta bere logelan panpinak ugari ziren: hartzak, txakurrak, mofeta bi, katu,... eta askoz gehiago!

Gauero, bederlatzi eta erdietan oheratzen zen. Gau ilun batean, ilargia plater bat bezain handi zegoen, euria ari zuen eta temperatura epela zen.

-Unai, esnatu! Esnatu! -esan zuen ahots batek.

Begiak ondo ireki, eta aho bete hortz geratu zen bere alboan hartz bat ikusi zuenean pikotxetan jarrita.

-Unai, zatoz gurekin! Leku zoragarri batera eramango zaitugu.

-Zein lekutara? - galdetu zuen.

-Sorpresa bat da. Zer? Animatzen al zara?

-Bai - erantzun zuen.

Lehenengo pisura jeitsi eta inoiz ikusi ez den egongelarik handiena zeharkatu zuten. Bertan oso argi polita zegoen, eta leiho erraldoiak. Txori bat zegoen kaiola batean abesten zituen soinuk maitagarriak ziren.

-Azkar! - agindu zuen katu batek.

-Nora goaz? - galdetu zuen umeak.

-Basora - erantzun zuen mofetak.

-Eta zer ikusiko dugu han? Zuhaitzak baino ez daude.

-Zu isil zaitez, eta ibili! Urrun dago eta.

Basorako bidea hartu zuten eta harantza abiatu ziren. Pelutxeak zerbait ikusteko egarrian zeudela zirudien. Txakurrak sagarondo batean zegoen sagar bat hartu eta Unairekin erdibanatu zuen.

-Noiz helduko gara? - Unai kopeta belzten



hasia zen. Ez zuen erantzunik jaso.

Orduan, bere sudurraren aurrean ikusi zuen... zaila da azaltzen... hain bitxia eta zoragarria zen: kristalezko zilindro baten modukoa zen.

-Zertarako da hau?

-Zerura joateko.

-Igo gaitezen guztiok! - esan zuen panpin batek oso urduri.

Igo ziren eta ...PUUUMMM! zerura abiatu ziren. Troposfera eta Estratosfera zeharkatu ondoren, hodei baten gainean gelditu ziren.

-OHH! Hau zoragarria da! zorretan nago zuekin!

Paisaia zoragarria zen, hodeiak alde guztietatik, ibai, mendi, lautadak eta herrixkak ikusten ziren. Unai pelutxeei galdetu zien ea korrika eta oihuka egin ahal zuen. Baietz erantzun eta gero, zoro baten moduan hasi zen korrika. Hain nekatuta zegoenez, hodei batean igo eta beheruntz begira geratu zen bat batean.

-Zer da hori?- esan zuen txakurrak.

-Ez dakit. Zulo erraldoia dirudi -esan zuen Unai

-Kontuz! Honuntza dator eta! Korri!

Ordu laurdena zeramaten korrika, ozono geruza zuloaren aurrean, baina ... beranduegi! Zuloa bertan zegoen!

-Aaaaaaaahhhhhh!!! - oihu egin zuen gure lagunak.

Ohetik jausi zen eta guztia amets bat izan zela konturatu zen.

Josune G. (1.C)

MAITALE ONA AL ZARA?

1. Zer erosiko zenioke zure mutil/neska lagunari San Valentín egunean?

- a. Tanga bat
- b. Ezer ez.
- c. Erastun bat.

2. Nortaz pentsatzen duzu oheratzerakoan?

- a. Pamela Anderson / Brad Pitt
- b. Zure bikotearen lagun onenaz.
- c. Zure bikoteaz

3. Zer egiten duzu zure gustuko pertsona ikustean?

- a. Beste espaloira joan.
- b. Tontoarena, bere arreta lortzeko.
- c. Gorri-gorri jarri eta agurtu.

4. Berarekin joanez gero, nora joango zinateke bidaia bat egitera?

- a. Leku erotiko batera: Brazil, Costa Rica...
- b. Leku erromantiko batera: Paris, Venecia...
- c. Zure herrira.

5. Zer arropa erosiko zenioke bere urtebetetzean?

NESKA BADA:

- a. Barruko arropa
- b. Loreak
- c. Amantal bat

MUTILA BADA:

- a. Antisorgailu kaxa bat
- b. Bonboiak
- c. Tripa jaisteko makina bat

6. Noiz gustatzen zaizu gehien berarekin egotea?

- a. Gauean.
- b. Goizean.
- c. Arratsaldean.

7. Zure bikoteari buruz, zer da gehien gus-tatzen zaizuna?

- a. Gorputza.
- b. Izakera.
- c. Ezer ez! Berarekin nago goseagatik.

8. Zure bizitza osoa igaroko zenuke berarekin?

- a. Bai
- b. Ez
- c. Ez dakit



9. Nolakoa izan zen zure lehenaldia zure oraingo bikotearekin?

- a. Hoberena!!
- b. Hobeak izan ditut.
- c. Mementuz ez dut frogatu.

10. Leiala al zara zure bikotearekin?

- a. Bai
- b. Ez
- c. Batzuetan, saiatzen naiz.

Balioak:

- a) 3 puntu
- b) 2 puntu
- c) puntu 1

Egileak:

Marina G
Matxalen M
Marta S
Estibaliz A
Zelai A.

Emaitzak:

>10 puntu: Jubilatui Hau ez da zurea.
10-20 puntu: oso maitale ona eta leiala. Libre al zauden?
> 20 puntu: makina erotiko bat zara, Lasai!

DENBORAPASAK

BIKOTE MIX

Elkar zenitzake aktore eta aktorea hauek protagonizatu duten pelikularekik?

- | | |
|----------------------|------------------|
| 1. Nicolas Belmonte | 1. Scream |
| 2. Devon Sawa | 2. Susana |
| 3. Neve Campbell | 3. Baila conmigo |
| 4. Eva Santolaria | 4. No te fallaré |
| 5. Antonio Hortelano | 5. Destino final |
| 6. Chayanne | 6. El seductor |

HIZKI ZOPA


Aurkitu Euskal Herriko ondorengo herriak:

Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Lekeitio, Bergara, Eibar, Elgoibar, Zumarraga, Antoñana, Oñati.

													W	D
													H	O
F	G	B	D	S	A	X	T	Z	A	X	F	V	N	N
L	Ñ	P	I	B	C	O	D	A	R	E	S	K	O	R
S	D	W	R	E	Ñ	R	T	Y	T	Z	U	M	A	R
F	K	G	H	A	R	E	T	X	A	B	A	L	E	T
G	J	H	N	A	E	A	R	R	S	T	Q	O	I	T
G	A	A	Q	W	N	M	L	E	A	A	O	P	I	A
H	J	U	K	N	A	S	D	F	T	I	U	K	H	H
L	Ñ	R	A	B	I	O	G	L	E	Ñ	L	I	O	Y

GURUTZEGRAMA

- Boligrafoak, arkatzak, etab. gordetzeko erabilzen dugun zorroa.
- Zeren gainean idazten duzu?
- Non bizi zara?
- Gezuraren kontrakoa.
- Garraio bat.
- Zabala ez dena.
- Neska izena.



Txistekak

Ezetz asmatu zergatik sartzen dituzte lepekoek erleak janaritan?

Saltsa "mina" izateko.

Mutil batek beste bati esaten dio:

-Ni Ander deitzen naiz, eta zu?

-Ba ni ez.

Betoker batzuk datoz Gasteiza txango bat egitera. Autobusean daudela, gidariak esaten die:

-Ezkerretara begiratzen baduzue Ama Zuria ikusiko duzue eskuinaldean.

Eskeletoa sartu da tabernan eta zerbitzariari:

-Garagardo bat, mesedez!

...

-Fregona, mesedez!!!

Hotela al da?

-Bai, zer nahi duzu?

-Erreserba bat egin nahi dugu: 20 gela doble, eta bateko bat

-Noren izenean?

-Ali Baba.

LAGUNTZAILEAK:

**EKIALDERANTZ
GURASO
ELKARTEA**


**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**